

ARGAZKI KOLOREZTATUAK ZAHARBERRITZEKO PAPERAN ERABILTZEN DIREN ZENBAIT KONTSERBAZIO ETA ZAHARBERRITZE TRATAMENDUREN EGOKITASUNAREN AZTERKETA

Tesiaren egilea: Enara Artetxe Sánchez

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Pintura Saila, Zaharberritzeko atala

Tesi-zuzendaria: Marta Barandiaran Landin eta Itxaso Maguregui Olabarria

Tesiaren laburpena:

Ikerketa honen asmoa izan da argazki koloreztatuaren gaineko ezagutzan sakontzea eta dakiguna ezagutzera ematea, eta, bigarrenik, argazki koloreztatuak zaharberritzeko metodologia zehatza ezartzea, batez ere garbiketa-tratamenduetan zentratuta.

Argazki-ondarearen barnean ohikoa da argazki koloreztatuak aurkitzea. Hala ere, gutxi aztertutako irudiak dira, argazki-prozesuarekin batera kolorearen presentziak eratzen duen konplexutasuna dela-eta. Horrenbestez, egun ez da existitzen argazki koloreztatuak kontserbatu eta zaharberritzeko metodologiarik. Orain arte, paper gainean zeuden argazkiak kontserbatu eta zaharberritzeko, paperean erabiltzen ziren tratamenduak erabili izan dira, baina jokabide horrek argazki-irudian sor zezakeen efektua aztertu gabe.

Ikerketa honek helburu bi izan ditu: alde batetik, argazki koloreztatuak aztertzea, hau da, erabilitako argazki-prozesuak eta prozedura piktorikoak identifikatu eta karakterizatzea, eta bestetik, irudi mota hauek kontserbatu eta zaharberritzeko argazki-irudia kaltetzen ez duten tratamendu egokiak bilatu eta finkatzea.

Tesiak bost atal ditu. Lehenengoan, argazki koloreztatuaren kokapen historikoa egin da, argazkigintzaren historian (1839-XX. mendea). Horretarako, argazkigintzaren eboluzioa azaldu da eta eboluzio horretan argazki koloreztatuak izan zuten presentzia aztertu da, haien inguruko hainbat kontzeptutan sakonduz. Batetik, koloreztatze kontzeptuan sakondu da, eta, bestetik, aspektu materialean. Beraz, argazki koloreztatuak aztertze, koloreztatzearen kontzeptua definitu da, jarduera horren jatorria eta egileak (koloreztatzaileak) aztertu dira eta eragin zituen jarrerak bildu dira. Behin testuingurua ezarrita, koloreztatze, koloreztatzearen kontzeptua definitu da, jarduera horren jatorria eta egileak (koloreztatzaileak) aztertu dira eta eragin zituen jarrerak bildu dira. Behin testuingurua ezarrita, koloreztatze, koloreztatzearen kontzeptua definitu da, jarduera horren jatorria eta egileak (koloreztatzaileak) aztertu dira eta eragin zituen jarrerak bildu dira.

Argazki koloreztatuaren gaia kokatu ondoren, argazki mota hauen egitura materiala atalez atal aztertu da. Argazki koloreztatuaren taldea zabala eta askotarikoa da. Horregatik, irudion ezagutza materiala ezinbestekoa da ikerketa honen alde esperimentalak planteatu ahal izateko. Bigarren atalean, argazki koloreztatuaren euskarriak (papera), argazki-irudia eratzen eta babesten duten materialak, geruza piktorikoak, eta muntatzeko metodo eta materialak deskribatu dira, argazki koloreztatuaren konplexutasun materiala agerrarazteko.

Ondoren, argazkien egitura materiala ezaguturik, pairatzen dituzten narriadurak bildu dira, argazki originalen behaketa eta azterketaren bidez. Eragiketa horrek agerian utzi du argazki koloreztatuak identifikatzea oso zaila dela, geruza piktorikoak zenbait iruditan argazki osoa estaltzen duelako. Irudiok identifikatzeko zailtasunaren aurrean zenbait ezaugarriren behaketa oso lagungarria dela ondorioztatu da.

Azken atalean, argazki koloreztatuak zaharberritzeko paperean erabiltzen diren zenbait kontserbazio-zaharberritze tratamenduren egokitasunaren azterketan, kontserbazio-zaharberritze tratamenduen bilketa eta bere egokitasuna ebaluatu da. Ondoren, garbiketa-tratamendua tratamendurik arriskutsuena eta kaltegarriena dela ondorioztatu da. Horrenbestez, saio esperimentalean, laborategian egindako proben bidez, zenbait disolbatzaile aztertu dira, kolorean eta argazki-irudian sortzen duten kaltea ebaluatuz. Aplikaturiko guztien artean, kolorean eta argazki-irudiaren dentsitatean kalterik sortzen ez duten tratamenduak hautatu dira, eta izpi ultramore, tenperatura eta hezetasun erlatiboa konbinatzen dituen zahartze artifizialen laguntzaz, epe luzera egonkorak ez diren tratamenduak baztertu dira.